

HERRITARREN ZAINDARIAK

POLIZIA EREDUAZ



LARRUN#279

POLIZIA EREDUAREN EZTABAIDAK UZTEN AL DU URRUNAGO IKUSTEN?

EGILEA | **PERU IPARRAGIRRE**

AZALA | **JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY**

Gai arantzatsua da Poliziarena, baina baita argigarria ere, eta politika askatzailea egin asmo duen orok aztertu beharrekoa.

Lan honetan Mark Neocleous ikertzaile eta irakaslearen lana hartu dugu lagun azken urtean berriz plaza publikora salto egin duen Polizia ereduaren eztabaidaren auzian murgiltzeko. Ez gara sakonegi murgildu, baina saiatu gara eztabaidan agertu diren ikuspegi desberdinak, eztabaida kokatzeko modu desberdinak eta Poliziaren izaera ulertzeko gako batzuk ematen.

Eztabaida honetan paper garrantzitsua jokatu du Ezker Abertzaleak, gaia hedabideetan

zein instituzioetan mahai gaineratuz. Estatuaren aurka urte luzez borroka egin duen mugimendua izaki, hainbat eremutan harridura sortu dute Ezker Abertzaleko ordezkariak Ertzaintza berreskuratzeaz eta “Polizia demokratikoaz” egindako adierazpenek. “Egokitzapen estrategikoaren” ostean, sistema politiko burgesa osatzen duten instituzioetako boterea kudeatzeko aukera eta “estatu bokazioaren” lurreratzeak posizioak argitzea eskatzen du. Erreformatu al daiteke Polizia? Eztabaidari modu sakonagoan heldu ezean Poliziak betetzen duen funtzio errepresiboa betikotzeko arriskua ez da txantxetakoa.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.802 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABLOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2022ko azaroaren 27an

Ordena estatu kapitalistetan: botere polizialaren funtzio soziala

Zalantzan jarri ohi ez diren gainerako gauzen moduan, pentsa liteke polizia ere betidanik existitu dela. Soldatarik gabeko mundu bat irudikatzea bezain zaila da ia, poliziarik gabeko bat irudikatzea. Horrela funtzionatzen du, eta kito. Baina orain horrela funtzionatzeak ez du esan nahi beti hala izan denik, noski, ezta beti hala izango denik ere.

Hori hala izanik ere, ezkerreko mugimenduen artean Poliziarekiko ezinikusia orokorra izan da Eus-

kal Herrian, gatazka politikoak ere, ezinbestean, elikatu du ezinikusi hori. Polizia izan baita Frantziako eta Espainiako estatuak askapen mugimenduak zapaltzeko erabilitako errepresiorako tresna.

ACAB eta haren moldaketak -1312, AZAB, eta abar-, *Tout le monde deteste la Police*, eta bestelako leloen erabilera orokortuak ezinikusi hori erakusten dute. Ukazio horretatik harago, baina, zein da Poliziak egiten den irakurketa politikoa? Zeintzuk dira proposamenak?

Azken urteetan behin eta berriz atera da Polizia ereduaren gaia eztabaida publikora. Ukazioarena errazkeriazko jarreratzat jo ohi da. Hau da, gaur egun ezinbestekoa litzateke indarrean dagoen Polizia eredu oinarri hartuta hori eraldatuko lukeen proposamen bat egitea, errealismo politikoaren ideari jarraiki, nahi bada. Badu horrek ondorio nabarmen bat, pixkanaka azaleratzen joan dena, eta hori da Poliziaren normalizazioa eta dakartzan arriskuak.

BORTIZKERIA

1871eko irudi bat, pospologileen protesten aurka Poliziak erabilitako bortizkeria erakusten duena. Egile ezezaguna.



Polizia erreformatu daitekeenaren ideiarene eskutik Polizia demokrati-koagoaz, gertuko Poliziak, Polizia euskaldunaz hitz egin da, besteak beste. Baina auzia ez da polizia ona edo txarra den, abstraktuan, edo Polizia hobeia izan daitekeen –ziur aski, eta ikuspegi desberdinetatik behatuta, izan baitaiteke–, baizik eta zein den Poliziak betetzen duen funtzio sozia-laren sorburua eta egitekoa, zergatik existitzen den Polizia gure gizartean, eta hortik abiatu eztabaida.

Poliziak huts-hutsean aritu behar-rean “botere polizialaz” mintzo da Mark Neocleous *A Critical Theory of Police Power* liburuan. *Maderos, chusma y orden social. Una teoría crítica del poder policial* izenburu-pean argitaratu du berriki Katakarak argialetxeak, gaztelaniara itzulita. Poliziaren inguruko eztabaidetan, Neocleousen aburuz, Poliziaren funtzioari buruzko hainbat pre-misa ontzat hartzen dira, hain zuzen ere, Poliziaren inguruko ideologia liberalean oinarritutakoak diren pre-misak. Ondorioz, abiapuntu horre-tatik egiten diren planteamenduak Poliziaren antolaketa egiturari, prozesuren zuzentasunari, erantzukizunari, gardentasunari, justiziari eta zuzenbide estatuaren inguru-ko zehaztapenetan galtzen diren “askatasun zibilen” eta poliziaren “erreformaren” inguruko eztabai-da antzuetan erortzen dira. Horre-la dio: “Funtzio poliziala” ‘Polizia’ bera baino zabalagoa da, eta botere poliziala, lehenik eta behin eta ba-tez ere, Estatuaren arma bat da”.

Auzia, beraz, Poliziaren nola-kotasunetik harago kokatu behar da Neocleousen arabera. Polizia-ren “kontrol demokratikoak” Poli-zia bere horretan uzteko arriskua izan ez dezan, garrantzitsuagoa da, Neocleousen ustez, botere poliziala zer den argitzea, poliziak gas negar-eragilea erabili beharko lukeen edo ez galdetzea bezalako ohiko galde-rak egitea baino.



**POLIZIAREN “KONTROL
DEMOKRATIKOAK”
POLIZIA BERE HORRETAN
UZTEKO ARRISKUA
IZAN EZ DEZAN,
GARRANTZITSUAGOA DA,
NEOCLEOUSEN USTEZ,
BOTERE POLIZIALA ZER
DEN ARGITZEA**



**GAUR EGUN ERE,
GAIZKI DEFINITUTAKO
“ORDENARIK GABEKO”
EGOERETAN ESKU
HARTZEN DU POLIZIAK,
DELITURIK EGIN DEN EDO
LEGE BAT HAUTSI DEN
KONTUAN HARTU GABE**

**ORDENAK BADITU
MILAKA AURPEGI**

Historikoki existitu zen jardun bati egiten dio erreferentzia Polizia-ren nozio zabalak. Hain zuzen ere, duela hainbat mende, gizartearen kudeaketa orokorraz arduratzen zen Estatuaren egitekoari zeritzon Poliziaren jarduna. Azaleratzen ari ziren estatu kapitalistetan, “polizia” etiketak esparru askori eragiten zioten instituzioak biltzen zituen.

Besteak beste, arreta medikoa, ongizatea, osasun publikoa, erai-kuntza eta argiteriaz arduratzen zen Polizia. Hain zuzen ere, ordena zaintzea izan da sorreratik botere polizialaren egitekoa. Botere poli-

zialak estatuaren beraren esentzia gordetzen du Neocleousen aburuz, eta, beraz, instituzio edo organo gisa hartu beharrean jarduera edo prozesu moduan aztertzen du.

Botere polizialaren kontzep-tuak, beraz, ordenaren zaintza Poli-zia indar profesioaletatik harago ulertzeko balio du. Hain zuzen ere, Polizia indarrez soilik mintzatzeak Estatu kapitalisten funtzionamen-duan ezinbestekoa den botere ho-rren lausotzea eta auziaren zati bati soilik erreparatzea ekarriko luke.

XIX. mendearen hasieran hasi zen Polizia “profesionalizatzen”. Pro-zesu luzea izan zen, baina ordenari zegozkion askotariko eginbeharrak organo bereizietan banatzen hasi ziren, eta horiek garatzen. Adibidez, Polizia medikoa zena “osasun so-ziala” bihurtu zen, eta gero ‘osasun zerbitzu’. Drainatze-sistemaren ku-deaketa eta kaleetako argiztapena osasun eta segurtasun publikoari zegozkion auziak bihurtu ziren. Po-breziaren zaintza “ongizate” bihur-tu zen lehenik, eta gero “gizarte-se-gurantz”, eta abar. Hor bereizi zen delinkuentziari aurrea hartzeaz eta legea betearazteaz arduratzen den Polizia gainerako funtzioetatik, eta bide horretan profesionalizatu zen.


Ustez legearen eta ordenaren zaintza bere gain hartzen dituen Polizia erakunde berri horrek fun-tzio zehatz eta definitu batzuk bete-tzen dituela pentsa dezakegu, baina, Neocleousen ustez, gaur egun ere, gaizki definitutako “ordenarik ga-beko” egoeretan esku hartzen du Poliziak, delituri egin den edo lege bat hautsi den kontuan hartu gabe.

Hain zuzen ere, ordena onaren inguruko auziez eta herritarren por-taeraz arduratzen diren erakunde guztiek harreman estua dute orain-dik orain Polizia indar profesiona-lak direnekin. Polizia erakundeek gainerako agentziekin harremana izaten jarraitzen dute, ibilgailu-li-zentziez arduratzen diren erakun-

UNIFORMEAK

New Yorkeko (AEB) Metropolitan Police Polizia indarreko agenteak uniformatuta, borrak eskuetan.

1871



deetatik eskoletara eta etxebizitza-sailetatik gizarte-segurantzako agentzietara. Beraz, Neocleousek dioenez, botere polizialaren forma modernoaren garapena erakunde politiko administratiboen garapenaren eta hedapenaren berdina da.

Greziaren adibidea hartzen du, besteak beste Neocleousek elkarrizketa batean: unibertsitateko campusetan Poliziaren presentzia orokortzea ez da kasualitatea. Euskal Herrian ere behin eta berriz ikusi ditugu campusetan Poliziaren esku hartzeak. Hain zuzen ere, Polizia indarren profesionalizazio mailakatuan Poliziaren agintaldia ustez murriztu arren, Poliziak ahalik eta botere zabalenak aldarrikatzen ditu oraindik.

Legia betearazteaz baino ordena fabrikatzeaz arduratzen den erakunde da Polizia Neocleousen



**LEGIA BETEARAZTEAZ
BAINO ORDENA
FABRIKATZEAZ
ARDURATZEN DEN
ERAKUNDEA DA POLIZIA
NEOCLEOUSEN USTEZ.
HORI DA BOTERE
POLIZIALAREN IZAERA
BEREZIAREN OINARRIA**

ustez. Hori da botere polizialaren izaera bereziaren oinarria, Poliziaren lehen teoriarari guztiek ulertu zutena. Horretarako ezinbestekoa da botere polizialaren teoria, eta ez Poliziaren ingurukoa bakarrik.

**ORDENA GIZARTE
KAPITALISTETAN**

Neocleousek ekonomia politikoa-ren kritikaren bitartez aztertzen du botere polizialaren auzia. Karl Marxen *Kapitalaren* lehen liburukia hartzen du erreferentziazat Neocleousek: Bertan Marxek ordena burgesaren "sekreturik gordeena" deitzen diona zein den azaltzen du. Hau da, kapitala existi dadin ezinbestekoa dela biztanleriaren gehiengo soldata ez den bestelako bizibideetatik bereiztea.

Kapitalak biztanleria "librea" behar du: bere eskulana soldata baten truke saltzeko gai eta prest dagoena. Horretarako, kapitalak Marxek munduaren kolonizazio sistematikoa deitzen dionari ekiten dio. Neocleousen ustez, beraz, sekretua estatuak kapitalaren eskaerari emandako erantzunean datza:



ZAINDARIAK

Bostoneko Polizia Askatasunaren
Kanpaia delakoa zaintzen, 1903an.

“Izan bitez langileak!”. Kapitalaren izateko ezinbesteko baldintza asetzen du hala estatuak, botere polizialaren bidez langile klasea sortuz eta erreproduzitzen.

Langileak ekoizpen baliabideetatik bereizi gabe ezin izango zatekeen kapitala existitu. Bereizketa hori gabe ez legoke metaketa kapitalistarik. Estatuak, legearen eta indarkeriaren bidez, eta bere legearen indarkeriaren bidez, soldatapeko lanaren klasea sortzen du. Jendeari lurraren kontrola bortizki kendu, haien etxeetatik bota eta eskale bihurtuz egiten du hori. Une horretan, klase nagusiak estatuari eskaleak zaintzea ahalbidetzen dioten legeak ezartzen ditu, esate baterako, eskaleak beren jaioterri itzularazteko aukera ematen dutenak, han lanean has daitezten.



DESJABETUAK HAIEN LAN INDARRA SALTZERA BEHARTZEAREN BIDEZ EMANDAKO SOLDATA FORMAREN OROKORTZEA ETA FINKATZEA ETA POLIZIAREN BOTEREAREN GARAPENA ELKARRI LOTUTAKO PROZESUAK IZAN ZIREN

Finean, desjabetuak soldatapeko langile bilakatzeko diseinatutako diziplina prozesuaren oinarrian dago botere poliziala.

POLIZIA OPERAZIORIK HANDIENA

Neocleousen aburuz, botere poliziala ulertzeko giltzarria da desjabetze, esplotazio eta metaketan oinarritutako gizarte ordenaren fabrikazioan duen zeregina ulertzea. Eskaleen aurkako legeak eta kapitalismo goiztiarreko Lanaren legeek soldatatik haragoko bizibidea nahi zutenen aurka egiten zuten.

Aldi berean, lur-jabeek eta azaleratzen ari zen klase kapitalistak lur komuna jabetza pribatu gisa erreklamatzeko legezkotako eskubidea eman zioten haien buruari. Horrek, era berean, gero eta gehiago zaildu zuen inork lurra landuz irautea, eta soldatapeko langile mota baten garapena indartu zuen. Neocleousen hitzetan hori izan da, historikoki, Polizia operaziorik handiena.



KUKUTZA

Kukutza III gaztetxearen hustuketan esku hartze bortitza egin zuen Ertzaintzak. Egun horretako argazkia.

Prozesu beraren jarraipena legoke Polizia indarren muinean: kapitalismoa garatu ahala soldaten forma finkatzea ekarri duena. Prozesu horretan, bizirauteko legezko mekanismoak ziren ekintzak pixkanaka kriminalizatu zituzten. Esaterako, Erresuma Batuan eta Europan, XVII. mendetik XVIII. mendera arte, enpresaburuek itundutako ahalegina egin zuten langileek eskuratzen zuten “lanaren onuraren” aurkako zigor penal berriak ezartzeko.

Neocleousek azaltzen duenez, portuko langileek, adibidez, historikoki, itsasontziz garraiatzen ziren oinarritzko produktuak –azukrea, kafea eta ontziko sotoko beste produktu batzuk– eskuratzeko esku-bidea zuten. Jantzien industriako langileek material hondakinak eskuratzen zituzten. Uzta bildu ondoren sakabanatutako aleak bildu ohi zituzten nekazaritzako langileek.

Soldataren mendekotasunetik apur bat askatzeko aukera ematen zieten langileei horrelako praktikek. Eskuratutako produktu eta artikulu horiek zuzenean erabil zitzaizketen, edo beste industria batzuetan lan egiten zutenekin trukeak egin, edo dirutan saldu. Hala ere, industria-iraultzaren garaian garrantzia historiko izugarria izan zuen mugimendu batean –Poliziaren boterea garatzeko funtsezko garaia ere izan zen–, klase boteredunak gero eta gehiago argudiatu zuen mota horretako ohi-turazko eskubideek soldata irabaztearen beharraren ideia eragotziko zuela.

Gainera, langileak “isuri” horiek sustatzen ari zirela sinestera iritsi ziren. Eta, hala, praktika horiek zigor penalaren mende ezarri zituzten gero eta gehiago. Hau da, ohiturazko mekanismo guztiz legezkoak zirenak legez kontrako bihurtu ziren, eta, Polizia lege berri eta intrusiboen arriskupeko. Prozesu hori, eskala handiko Polizia operazio gisa har daitekeena, funtsezkoa izan zen



**ZENTZU HORRETAN,
EZ DU POLIZIAK LEGEA
BETEARAZTEN, BAIZIK ETA
LEGEAK MOLDATZEN DIRA
BOTERE POLIZIALAREN
BEHARRETARA, MOZAL
LEGEAREKIN ZEIN
ESPAINIAKO ZIGOR
KODEAREN ERREFORMEkin
IKUSI DEN BEZALA**



**GAUR EGUN ERE JABETZA
PRIBATUA ZEIN KLASA
JABEDUNAREN KAPITAL
METAKETA ARRISKUAN
EDO ZALANTZAN JARRIKO
LUKEEN EDOZEIN ESPRESIO
ZIGORTZEKO LANA DU
POLIZIAK**

soldataren logika finkatzeko. Hain zuzen ere, Neocleousek azpimarratzen duenez, desjabetuak haien lan indarra saltzera behartzearen bidez emandako soldata formaren orokortzea eta finkatzea eta Poliziaren boterearen garapena elkarri lotutako prozesuak izan ziren.

Eskaleei buruzko legedia ere botere polizialaren zati funtsezkoa da Neocleousen arabera. Oro har modu oso zabalean definitutako jokabidea erreprimitzeko bidea ematen dute halako lege eta egiteko lausoei, garai batean eskaleak eta soldatapeko lanik egin gabe bizirautean zutenak soldatapeko lanera integratzera behartzeko; gaur egun,

ordena zalantzan jartzearen susmagarritzat jotzen den edonor atxilotu eta galdekatzeko. Horrek erabateko autoritatea ematen dio Poliziaren botereari Neocleousen arabera; izan ere, susmoak eta akusazioak Polizia agenteen esku daude erabat. Halako legeen helburua ez da delituak zigortzea, desordenatutzat jotako jokabideak ezabatzea baizik. Hain zuzen ere, Neocleousek azpimarratzen duenez, legea beti dago egituratuta Poliziak ordena onaren izenean egin nahi duena egin dezan. Zentzu horretan, ez du Poliziak legea betearazten, baizik eta legeak moldatzen dira botere polizialaren beharretara, Mozal Legearekin zein Espainiako Zigor Kodearen erreformekin ikusi den bezala.

**SEGURTASUNA ETA
BOTEREA**

Poliziaren boterearen ideiak, beraz, “segurtasunik eza ordenatzearen” ideia du oinarrian. Neocleousen aburuz, segurtasun beharrak fabrikatzen dira, segurtasun hori soilik Poliziak eman dezakeela esateko gero. Zentzu horretan, “segurtasuna” askatasunaren aurkako erasoak justifikatzeko baliatzen dela uste du Neocleousek: “Segurtasuna da orain gure obediencia-aren arrazoiak: lasaitu eta obeditu, segurtasuna jokoan baitago”.

Neocleousek egiten duen genealogia hori gaur eguneraino heltzen da. Gaur-gaurkoz erabat naturalizatuta dago estatu kapitalistaren botere polizialaren erakusgarri den Polizia, soldata forma bera bezala. Bain gaur egun ere jabetza pribatua zein klase jabetunaren kapital metaketa arriskuan edo zalantzan jarriko lukeen edozein espresio zigortzeko lana du Poliziak. Oraindik ere langile klasearen askatasun formalei dagokien askatasun materiala, lege, horixe baita: ekoizpen baliabideekiko askatasuna eta haien lan indarra saltzeko askatasuna. Hori baita ordena.

Polizia Euskal Herrian, abiapuntua eta ereduaren inguruko eztabaida

Pandemia garaira etorrita, Poliziaren esku-hartzearen izaera mugagabea ezagutarazi duela aipatzen du Neocleousek. Hain zuzen ere, ordena kapitalistaren gaineko zaintzaren lausotasun eta zabaltasun horrek kontrol esplizitu eta orokortuagoa erakusteko aukera eman dio Poliziari osasun larrialdia zela-eta.

Euskal Herrian ere Covid-19aren pandemiak berarekin ekarri zuen, besteak beste, eta ezinbestean, ka-

lean egoteko beste modu bat, ez gaitasunetik babesteko neurriek ezarrita soilik; neurri horien kontrolak ezaugarritutako bestelako ohitura batzuk zabaldu ziren.

Asteak eta asteak luzatu zen kalera ateratzeko debekuak, etxeratze aginduek zein konfinamendu perimetralek jarritako mugek markatu zuten egunerokotasuna hainbat hilabetez. Tarte horretan, ezarritako arau gutxi-asko konple-

xuak eta orokorrak betearazteko etengabeko lana egin zuen Poliziak, batzuetan balkoietako hainbat poliziak lagunduta.

Konfinamenduek eta etxeratze aginduek, eta baita jendea kalean elkartzeari jarritako debeku eta es-tutze eta erlaxazio gradualek kontrol sozialerako gehigarri ukaezina ekarri zuten. Testuinguru horretan, eta debekuak laxatu ahala, kalera ateratzeko gogo nabarmena zen,

ERTZAIN-TZA

40 urte bete ditu aurten Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia indarrak. 1979 Autonomia Estatutuan jasota daude Polizia propio baten eskumenak.



eta ez kalera ateratzekoa soilik, jendearekin egotekoa ere. Etxeratzeko aginduaren ordua baino lehen aprobeztatu behar, besterik ez, eta launaka edo seinaka bildu. Baina tabernetako terrazetan gertatzen zena eremu pribatizatu horretatik atera eta plazetan egiten zutenak, esaterako begitan hartu zituen Poliziak.

MUCHA POLICÍA POCA DIVERSIÓN?

2020ko abendu hasieratik 2021eko urtarrilaren amaierara horren adibide argiak jazo ziren Donostiako Parte Zaharrean. Garai hartan 22:00etan etxeratzeko agindua zegoen indarrean, eta ordu horren bueltan udaltzainek nahiz ertzainek gazteak bildu ohi ziren lekuetan egindako esku hartzeetan istiluak izan ziren behin baino gehiagotan.

2020ko abenduko lehen astetik aurrera tentsioa igotzen joan zen Donostiako Parte Zaharrean. Hain zuzen ere, behin tabernak itxitakoan Trinitate plazan biltzen ziren gazte eta ez hain gazteak pilatuegi ez zeudela eta edaten ari ez zirela ziurtatzeko, ziotenez, zaintzera agertzen zen Polizia. Hainbat alditan ikusi ziren istilu gogorrak, baina egoerak goia jo zuen 2021eko urtarrilean, San Sebastian eguneko bandera-altxatzearen ondoren.

Gau hartako irudietan ikus daiteke nola ertzainek “Jotzeko tiro egingo dugu” agindua jasotzen duten. Hamarnaka zauritu utzi zituzten gertakariak, baita atxilotuak ere. Urtarrilaren 23an milaka lagun batu ziren Donostiako Parte Zaharrean egindako manifestazioan. Auzoaren “militarizazioa” eta “polizia indarren errepresioa” salatu zuten, besteak beste.

Egun horietan irakurketa egin zuen Donostiako Alde Zaharreko Gazte Asanbladak (AZGA): “Osasun krisiaz haratago, egiturazko krisi kapitalista baten aurrean aurkitzen gara. Horrez gain, pandemiaren tes-



POLIZIA ASKO DAGO EUSKAL HERRIAN, ELKARBIZITZEN DUTEN INDAR POLIZIALEN KOPURUEI ZEIN INDAR POLIZIAL BAKOITZEKO AGENTEEI DAGOKIENEZ. MILA BIZTANLEKO ZAZPI POLIZIA LEUDEKE EUSKAL HERRIAN. EUROPAKO BIGARREN POLIZIA RATORIK HANDIENA

tinguruan poliziaren errepresioa areagotu egin da. Errepresio honek aurpegi ezberdinak ditu, bere helburua antolakuntza galaraztea eta gazteen alienazioak bere horretan jarraitzea delarik”. Horren adibide jarri zuten instituzioetatik kanpo antolakunde eta mugimenduen antolakuntza galaraztea, biltzeko mugak jartzea, mobilizazioak mugatzea eta gazteek auzoko plazetan lasai egon ezin izatea, baita Poliziaren miaketak, identifikazioak eta harropuzkeria ere.

Poliziaren jazarpenaren areagotzea salatu zuen AZGAk: “Gorputz polizial ezberdinek haien eskumenak handitu dituzte, berezko jarra errepresiboa intentsifikatuz eta haien inpunitatea babesten duten neurri berriei baliatuz”. Zentzu horretan, Donostiako Alde Zaharrean emandako gertaerak kasu isolatuak ez zirela azpimarratu zuten eta Euskal Herriko txoko ugaritan pandemia hasi zenetik Poliziaren aldetik jasandako “erasoak” gogorarazi zituzten. Horrekin batera, Polizia-

ren jarrera justifikatzeko masa he-dabideek egindako lana ere aipatu zuten.

Errepresio aparatuen erro komuna ere azpimarratu zuen gazte asanbladak: “Sistema kapitalista zilegitu eta haren aurka altxatzen den oro zapaltzea”. Horretarako, tresnagero eta sofistikatuagoak garatzen direla nabarmendu zuten, adar teknologikoan zein komunikatiboan.

ORAIN ETA HEMENGO POLIZIAZ

Pandemia garaiko istiluek, besteak beste, mahai gainera atera zuen Polizia ereduaren gaineko eztabaida. Lehenago ere, 2012an ertzain batek botatako pilotakadak Iñigo Cabacas hil izanak ere Poliziaren izaerari buruzko eta balizko erreformari buruzko iritziak altxatzea ekarri zuen, baita Ertzaintzan zenbait aldaketa ekarri ere. Baina, ordenaren eta segurtasunaren zaindarien inguruko eztabaida polizia indar konkretuetara mugatu da gehienetan, batez ere Foruzaingoak zein EAEko Polizia autonomikoak izan beharreko ereduak buruzko kontuetara.

Polizia asko dago Euskal Herrian, elkarbizitzen duten indar polizialen kopuruei zein indar polizial bakoitzeko agenteei dagokienez. Mila biztanleko zazpi polizia leudeke Euskal Herrian. Europako polizia ratorik handiena da hori, Montenegroren atzetik -8,8 polizia mila biztanleko-, eta Europako batez bestekoa -hiru polizia mila biztanleko-bikoitza baino gehiago. Orotara, beraz, 20.000 polizia inguru daude Euskal Herrian. Ipar Euskal Herrian udaltzainak baizik ez dira “bertako” polizia unitateak. Hego Euskal Herriari dagokionez, aldiz, Segurtasun publikoaren gaineko eskumena estatuak duen arren Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan horri dagozkion eskumen batzuk partekatzen ditu. Ertzaintzak Gipuzkoa, Araba eta

POLIZIA ARMATUA

Foruzain bat eta Iruñeko udaltzain bat Iruñeko karriketan, pistola banarekin.



Bizkaian eta Foruzaingoak Nafarroan Guardia Zibilarekin zein Espainiako Polizia Nazionalarekin batera jardun behar du, eta horiei gehitu behar zaizkie herrietako Udaltzaingoak.

Ezker Abertzalearen “egokitza-pen estrategikoaren” ostean, baina, urak baretu dira eta oraindik ere argitzeko asko geratzen bada ere

Poliziaren inguruko ikuspegi bat azaleratzen ari da, batez ere Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko zein Nafarroako administrazioetako Poliziei dagokienez. Egoera normaltzen ari da, hainbatek dioenez.

Euskal Herriko gatazka politikoan Espainiako zein Frantziako Polizia indarrak etsaitzat hartu izan dira, estatu zapaltzaileen ordezkari

ri eta errepresio indar gisa jardun baitute eta hala identifikatu baitira. Polizia autonomikoak askotan Poliziaren zaku orohartzaile horretan sartu izan badira ere, horien inguruko proposamen politiko bat plazara du Ezker Abertzaleak.

Donostiako Alde Zaharrean gazteen kriminalizazioa salatzeke egin dako manifestazioaren bezperan, 2021eko urtarrilaren 22an, Arnaldo Otegi EH Bilduko koordinatzaile nagusiari elkarrizketa egin zioten ETB1eko *Egun On Euskadi* saioan. Bertan, besteak beste, hizpide izan zuten Donostiako afera, eta Ertzaintzaren jokamoldea kritikatu zuen Otegik. Baina harago ere joan zen: “Zein Polizia nahi dugu euskaldunok?”, galdetu zuen. Polizia “eredu propio” bat eduki beharra aipatu eta horren inguruko hausnarketarako deia egin zuen.

Hain zuzen ere, Ezker Abertzaleak, historikoki, “Polizia demokratikoa, euskalduna eta herritarra” izatea nahi zuela gogorarazi zuen Otegik, eta azken hamarkadetako “historia tamalgarriaren” ondoren Polizia ereduari buruz hitz egiteko aukeraz mintzatu zen.

EH Bilduko koordinatzaile nagusiak elkarrizketa hartan aipatu zuenez, “Espainiako Poliziaren eredu” errepikatu da Euskal Herrian: “Orain dela 50 urte jende guztiak argi zeukan ez genuela nahi Espainiako Poliziaren eredu herri hone-tan: jotzen duen Polizia, pelotazoak, tortura eta abar”. Horregatik, “beste mota bateko Polizia bat egiteko” hausnarketa eskatu zuen.

ERTZAINZA BERRESKURATZEA

Poliziaren eta gazteen arteko istiluak behin eta berriz errepikatu ziren 2021eko udaberrian eta udaran ere, jaien –ez-jaien, hobe esanda– aitzakian. Fokua gazteen zein Poliziaren jokabidean jarri zen berriz, kale zurruta zela eta ez zela, gehiegizko

bortizkeria zela eta ez zela. Horrela joan zen 2021a eta heldu 2022a. Pandemia osteko normaltasun berria indarrean zela hasi zen Ertzaintzaren 40. urteurrena.

Izan ere, 1982ko otsaila jotzen da Ertzaintzaren sorrera unetzat. 1980an dagoeneko dozena batzuk gizon Berroziko (Araba) lurretan entrenatzen hasi ziren arren, 1982ko otsailean hasi zituen lehenengo ikastaroak Euskal Autonomia Erkidegoko "Polizia integral" bilakatuko zen Ertzaintzako lehen promozioak. Geroztik, 40 urte eta 29 promozio izan ditu Polizia autonomikoak. Abenduan bederatzi hilabeteko prestakuntzaren amaituko duten agenteek osatuko dute 30. promozioa.

Baina Ertzaintzaren historia atzeragotik ere konta daiteke. 1936an, Gerra Zibil betean eta II. Errepublikara garaian onartutako Estatutuaren babesean, José Antonio Agirre lehendakariaren gobernuko Gobernazio sailburu Telesforo Monzonek –gerora Herri Batasunako kide esanguratsua izan zena– Guardia Zibila eta Guardia de Asalto poliziak desegin eta Ertzaña –Euzkadiko Polizia Militarra– izeneko Polizia indarra abiatu zuen, hasieran Getxoko nazioarteko eta portuko eremua zaintzeko egitekoa betezuena –Lauaxeta poetak asmatu omen zuen Poliziaren izena–.

Frankismo ostean 1978an Espainiako Konstituzioa eta 1979ko Autonomia Estatutua onartu zirenean, EAEko autonomia berriari esleitutako eskumenetako bat izan zen Estatuko Segurtasun Indarren eskumenak neurri handi batean bere gain hartuko zituen polizia-indar bat izatea.

Lehendik existitu ziren foru Poliziak izan zituen oinarrian Ertzaintza berriak. Araba "probintzia leiala" izan zenez, bertako Miñoien Polizia indarra oraindik existitzen zen, Nafarroako Foruzaingoa bezala. Biz-



SINBOLISMOZ KARGATUTAKO POLIZIA DA ERTZAIN-TZA, SORRERATIK BERTATIK EAJ-REKIN LOTURA ESTUA IZAN DUENA, 1936AN ZEIN 1980TIK AURRERA

kaiko Guardia Forala –Miñoiak deitua ere– eta Gipuzkoako Mikeleteen gorputza berrezarri zituzten. Gaur egun sinbolikoki existitzen dira hiru Polizia gorputz horiek, kide guztiak ertzainak baitira, nahiz eta horietako batzuek eskumen zehatz batzuk mantentzen dituzten.

ESTATU BOKAZIOA

Sinbolismoz kargatutako Polizia da Ertzaintza, sorreratik bertatik EAJrekin lotura estua izan duena, 1936an zein 1980tik aurrera. Zentzu horretan, EAJri EAEko erakundearen kudeaketa disputatzeko asmoa duen Ezker Abertzaleak Poliziarekiko duen proposamena mahai gaineratu du. Hain zuzen ere, gaiari ez heltzea esparru horretako erabakimena erabat "eskuinari" uztea litzatekeela behin eta berriz entzuten den argudioa da.

Ertzaintzaren 40. urteurrenak hainbat polemika ekarri zuen. Urte hasieran hainbat afixa agertu ziren, Ertzaintzaren eta udaltzainen lan eskaintza publikoan parte hartzeko deia egiten zutenak, baina ohiko argazkiak beharrean ertzainak gazteak kolpatzen ageri ziren karreteletan. Afixa horiei erantzun zien

Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun sailburuak. Radio Euskadiren *Boulevard* saioan egindako elkarrizketan, ertzainen "profesionaltasuna, konpromisoa eta zerbitzurako bokazioa" nabarmendu zituen Erkorekak Polizia erakundearen 40. urtemugan; "gizarteak ere horrela jasotzen du", esan zuen. Hala eta guztiz ere, onartu zuen "hobetzeko borondate jarraitua" duela Ertzaintzak. Erkorekaren hitzei erantzun zien Arkaitz Rodríguez Sortuko idazkari nagusiak: "Gu euskal polizia baten aldekoak gara: demokratikoa, prebentziozkoa, eskalduna... baina zoritxarrez, eredu horretatik oso urrun dago Ertzaintza".

Hilabete batzuk lehenago, 2021eko ekainean, Sortu alderdiari lotutako Iratzar fundazioak argitaratzen duen *Erria* aldizkariak *Euskal Herriak behar duen polizia ereduaz* dossier mamitsua argitaratu zuen, Ezker Abertzalearen proposamena modu sakonagoan aurkeztuz. Baina hori ez da Ezker Abertzaleak Polizia ereduaren inguruko eztabaida mahai-gainean jarri duen lehen aldia. 2016an, esaterako, *Euskal Herriko segurtasun publiko eredu berri baterako oinarriak* izeneko jardunaldiak egin zituen EH Bilduk.

Gaiari egindako hitzaurre gisa, "Erosotasunetik aldendu eta herri ikuspegitik zereginei ekin beharraz" du izenburua *Erria* aldizkariaren zenbaki horren editorialak. Eta abiapuntu horretatik ekiten diote Polizia ereduaren auziari: "Estatu bokazioa dugun heinean, kudeatu beharreko gai arantzatsu gehiago ere baditugu. Horietako bat da segurtasunaren eta Poliziaren auzia."

Dosierreko artikuluetan modu argian bereizten dira Frantziako eta Espainiako indar polizialak eta "Euskal Herrikoak": Nafarroako Foru Komunitatekoa eta Euskal Autonomia Erkidegokoa eta herrieta-ko udaltzaingoa. Helburua, estatu



DANI BLANCO

bat eta, beraz, hari dagokion Polizia gorputz bat izango litzateke, baina bitartean eskura dauden tresnekin lan egin behar, eta dauden Polizia indarretan eragitea da bidea.

Ertzaintzaren historian EAJk izandako boterea, Polizia gorputzaren barruan egun dauden fakzioen arteko tirabirak, eta, besteak beste, eskuin muturreko ideologiaren hedapenaren auzia dira egungo Polizia ereduaren identifikatzen diren arazoetako batzuk. Bestetik, Euskal Herrian Euskal Herritik kanpoko Poliziak nagusi direla eta “berta-koek” gero eta garrantzitsuagoak

ZATOZ EUSKAL POLIZIARA

Ertzaintzaren 40. urteurreneko urtearen hasieran Ertzaintzaren kargak erakusten zituzten kartelak agertu ziren kaleetan, lan eskaintza publikorako deialdia parodiatuz. Ertzaintzako sindikatu batzuen eta Eusko Jaurilaritzaren haserrearen eragin zuen kanpainak.

diren gaietan eskumenik ez dutela ere aipatzen du *Erriak*.

Beste auzi batzuetan ere sakontzen du Dosierrak. Arkauteko Akademiak ematen duen entrenamendua eta, oro har, Ertzaintzak esku hartzeko duen ereduaren zalantza jartzen dute, herritarrekiko eta komunitateekiko gertutasunik gabea, Polizia etxeetan isolatuta eta gatazken aurrean indarrarekin eta ez hitzekin

erantzuten duena, besteak beste.

Polizia eredu komunitario baterako proposamena egiten dute al-dizkarian. Batetik, segurtasunaren ikuspuntu integral baten beharra aipatzen dute, Poliziatik harago, esparruetan ere kontuan hartu beharrekoa. Segurtasunaren ikuspegi “demokratikoa, prebentiboa eta ez zigortzailea” jartzen dute mahai gainean, hirigintza, ongiza-

tea, gizarte zerbitzuak, babes zibila, hezkuntza eta ikuspegi feminista barneratuko dituen. Poliziaren kontrolerako eta gardentasunerako mekanismo herritarrek eta Poliziaren eta herritarren arteko beste-lako harreman baten beharra ere aipatzen dute. Ohiko puntuak dira horiek guztiak Polizia ereduari buruzko eztabaidetan, eta hein handi batean Poliziaren bertsio gizatiarrago bat eta segurtasuna kudeatzeko modu egokiago baterako bidea izan badaiteke ere ez dio erreportaje honen lehen zatian aipatu dugun erroto arazoari erantzuten.

NAZIOARTEKO EZTABAIDA

Nazioartean ere azken urteetan zabaldu da Polizia ereduaren inguruko eztabaida. AEBetan, esaterako, Poliziaren diru-iturriak erabat murriztea, erreformatzea eta baita zuzenean abolitzearen aukera jarri zuten mahai gainean Black Lives Matter eta bestelako mugimenduek 2020an, George Floyden hilketaren ostean. Hainbat erreforma ekarri zituzten protestek, teknika eta lege zehatz batzuei dagokienez –inmobilizatzeko belauna lepo gainean jartzea, etxeko atea zuzenean behe- ra botatzeko agindu judizialak, eta abar–, baina ez dira harago joan.

ABOLIZIOA ORAIN ETA HEMEN

Polizia erreformatu ezin dela eta abolitu behar dela esatea erraza da. Erraztasun eta “xalokeria” horri egiten dio erreferentzia *Erria* aldizkariaren editorialak. Baina helburua askatasun unibertsala bada botere polizialaren funtzio soziala ezabatu behar da, hori izan behar da helburua, eta horretarako prozesuak abiatu behar dira.

Badira urte batzuk Altsasun (Nafarroa) Ospa Eguna antolatzen dutela. Aurten, Polizia indarren normalizazioa jarri dute jopuntuan. Hitzaldi bat, mahai-inguru bat eta



AEBETAN POLIZIAREN DIRU-ITURRIAK ERABAT MURRIZTEA, ERREFORMATZEA ZEIN ZUZENEAN ABOLITZEAREN AUKERA JARRI ZUTEN MAHAI GAINEAN 2020AN

manifestazioa egin dituzte, besteak beste. “Poliziarik ez! Langileon aurkako errepresioa gelditu” lelopean antolatu dute egitaraua.

Guardia Zibilaren eta Espainiako Polizia indarren kanporatzea eskatzeko ekimenak ikuspegi zabalagoa hartu du azken urteotan, Polizia indar zehatz batzuk soilik zalantzan jarri beharrean Polizia oro har eta Poliziaren funtzioa zalantzan jartzen ari dira haien hausnarketetan.

Mahai-inguruan mintzatu zirenen ustez, krisi kapitalista garaian Poliziaren normalizazioa eta errepresioaren legitimazioan sakontzea ekarri dute alderdi politikoei. Adibidez jarri zuten EH Bildu koalizioak Nafarroako Foruzaingoaren erretiro adina jaitea garaipentzat hartzea.

Udara honetan zeresana eman duen gertakari pareta ere aipatu zuten: Mutrikuko eta Berriozarko jaietan ertzain batek, lehen kasuan, eta Foruzaingorako hautagai batek, bigarrenetan, parte hartzearen inguruan sortutako polemikak. Jai eremu alternatiboetan, orain arte, behintzat, ezohikoa izan da Poliziaren parte hartzea, baina kasu hauek tentsioa eragin dute, eta erakusten

dute gazte langileen artean Poliziarena besteak bezalako lanbide gisa hedatzen ari dela.

Ospa Eguneke mahai-inguruan aipatu zutenez, “Jende askorentzat polizia gizartearen parte den instituzio naturala da, baina honen sorrera kapitalaren dinamikaren baitan txertatzen da.” Neocleousek azpimarratzen duenaren haritik tiraka, beraz, Poliziari bestelako funtzio bat ematen saiatu arren, edo, bederen, funtzioak nolabait zehazten eta mugatzen saiatu arren, “ordena mantentzearen” mandatuak beti hartuko dio gaina ezein asmo oni, eta ordena hori Poliziak berezkoak dituen eta erreformak erreforma galduko ez dituen kontrol eta errepresio funtzioen bitartez mantenduko du. Hala azaldu zuten Ospa Egunean: “Burgesiak kapitala metatzeko *statu quo*-a bermatu behar du, eta eginbehar hori Poliziak hartzen du”.

“Poliziak osotasun bati egiten dio erreferentzia, ez da egitura partzial bat. Hau da, gizartearen produktua da eta hortaz, kontraesan horiek konpontzen ez diren heinean funtzioa bera aldatzea ezinezkoa da.” Horrela, Poliziaren desagerpena betetzen duen funtzio sozialaren desagerpenarekin lotu zuten, hau da, “kapitalaren babesa” beharrezkoa ez den momentuan baizik ezingo da zalantzan jarri Poliziaren izatea.

Bide horretan aurrera egiteko borroka ideologikoaren garrantzia nabarmendu zuten Altsasun. Poliziaren instituzioaz modu isolatuan hitz egin beharrean Poliziaren funtzio soziala azpimarratu eta ekoizpen modu kapitalistarekin eta harreman sozial kapitalistarekin duen lotura zuzena azalarazteaz mintzatu ziren.

Ezker Abertzaleak planteatutako Polizia ereduaren inguruko eztabaidaren oinarrietako bat da “bertako” Polizia eredu egokiaren aukera. Hau da, Frantziako eta Espainiako



BENAT PARRA / IRUTXULO KO HITZA

LA DELGADA LINEA AZUL

Donostian etxe kaleratze bat gauzatzen ari ziren ertzainetako batek “La delgada linea azul” leloa zeraman eskumuturreko zeukan jantzita. Eskuin muturreko mugimenduekin lotura duen leloa da. Ez da lehen aldia Ertzaintzan eskuin muturreko ideologiak duen hedapenaren sinboloak ikusten direna.

Polizia indarrak kanporatzea eta bertakoak erreformatzea da proposatzen dena. Ospa Egunean Polizia nazionalaren paradigma hori zalan-tzan jarri zuten: “Ertzaintzak funtzio atseginagoa izan dezake, baina horrek ez du esan nahi beste gorputz polizialek dituzten funtzioak mantenduko ez dituela. Ertzaintzak ere desalojatzen du eta torturatzen du, haren funtzioa nazionalitatearen gainetik dagoelako”.

POLIZIARI EZ

Poliziak errepresiorako dituen baldintzak desnormalizatu eta borrokatzeko beharra aipatu zuten Ospa Egunean, horren bidez “proletalgoaren defentsa politikoa” elikatzeko. Zentzu horretan, eta borroka kulturalaren garrantzia azpimarratuz,



POLIZIAREN KONTZEPTUA GAINDITZEKO BERE FUNTZIO SOZIALA DESAGERTZEA, SISTEMA KAPITALISTAREN GAINDITZEA, ALEGIA, EZINBESTEKOA DA

Poliziaren izaera modu partzialean beharrean modu estrategikoan zalan-tzan jarri behar dela errepikatu zuten. Kontrako bidean sakontzen duten “alderdi sozialdemokratikoe-

tatik” egiten diren proposamenak “oso arriskutsuak” direla ere aipatu zuten Altsasun.

“Askotan polizia eza kaosarekin erlazionatzen da, baina hori ez da horrela. Polizia eza kapitalismoarekin amaitzea da”, esan zuten. Segurtasuna eta ongizatea beharrezkoak badira ere, Poliziaren iraupena harreman sozial kapitalistaren iraupenarekin lotu zuten Ospa Egune-ko mahai-inguruan. “Segurtasuna antolatu beharko da, baina ez da beharrezkoa izango Polizia gorputz bat egotea”. Hain zuzen ere, Polizia termino eta kontzeptu gisa gainditzearen beharraz mintzatu ziren, eta horretarako bere funtzio soziala desagertzea, sistema kapitalistaren gainditzea, alegia, ezinbestekoa dela azpimarratu zuten. ●

Ipar Euskal Herrian, Nafarroa Hegoaldean edo Trebiñun

Euskara ikasten ari zara?

ARGIA aldizkaria doan bidaliko dizugu

euskara ofizial ez den lekuetan
euskara ikasten ari zaretenoi.
Merezi duzuelako eta animatu
nahi zaituztegun.

Interesatzen bazaizu, idatzi edo deitu
azaroak 30 baino lehen:

komunitatea@argia.eus (+34) 943 37 15 45

Egin ARGIAkoa